

## EDITORIALA

### Kimu berriak

Ekonomia suspertze bidean dagoela sinetsarazi nahi digute eta, hartara, kimu berriak ernaltzen ari omen dira bazter guztietan. Ez dakigu ekonomia suspertze biderako datu esanguratsuak izango diren ala ez; hori denborak esango du –ohiturik bai-kaude hainbat aurreikuspen porrot egiten ikusten eta–. Dena den, ekonomia suspertu edo ez funtsezkoa da jakitea noren mesedetan suspertu edo biziberrituko den. Hor dago kakoa guretzat.

Langabezia-datuen azken hilabetearen bilakaera agintari politikoen hizpide interesatua izan da berriro, egoera hobetze bidean dagoela kontentzitu nahian. Estatistiken erabilera interesatuaz aparte, datuek langabeziaren beherakada eman dute, baina ezer gutxi aipatzen diren kontuak badaude. Batetik, sasoiko kontratazioa dago, alegia udako garaiari lotutako kontratazioa bada, turismoa eta zerbitzuen gorakada dela eta, amaiera data jakina izango dute kontratazio horiek. Beraz, gozo une motza benetan.

Bestetik, ezer gutxi aipatzen dute kontratazio horren kalitateaz. Dagoeneko egiten diren kontratu guztien ehuneko 94 inguru aldi baterakoak dira, itzela benetan –finean prekaritate gordinena zabaltzen ari denaren erakusgarri nabarmena–. Ezer gutxi aipatzen dute ere lanaldi partzialaren gorakada nabarmenaz, orduko lana nonahi zabaltzen ari delarik. Beraz, kalitate eskasa kontratazio berrietan.

Era berdinean esplikatu diezaien iraupen luzeko langabezia egoeran daudenei non igartzen dituzten kimu berriak. Edota esplikatu diezaien gauza bera langabezia prestazioak, eta horrekin lotutako laguntzak, amaiturik dituzten pertsonen. Ez, langabeziaren trataera eraginkorra ez dago agintarien lehentasunen artean. Eta gogorra da zeharo frogatzea nola patronalak langabezia erabiltzen du langileon artean mehatxuak zabalteko eta langile klasea zatikatzeko. Ez gaitzen estrategia horretan erori. Guzti hau ikusita... non daude kimu berriak?

**Eusko Legebiltzarrak azpikontratazioaren inguruko Legegintzako Herri Ekimena tramitatzea onartu du, EH Bildu, PSE eta UPDren aldeko bozekin eta EAJ eta PPren abstentzioarekin**

## “MILAKA LANGILEREN EGOERA HOBETZEKO AUKERA BIKAINA DUGU”

Administrazio publikoarentzat –zuzenean edo zeharkalan egiten duten langileen lan-baldintzen inguruan ELAK azken hilabeteetan bultzatutako Legegintzako Herri-Ekimena bere bidea egiten ari da. **Euskal Autonomia Erkidegoan**, ekainaren 26an Gasteizko Parlamentuak onartu egin zuen Legegintzako Herri-Ekimena tramitatzea. **Nafarroan**, beharrezkoak ziren sinadurak behin aurkeztuta, Parlamentuak irailetik aurrera hartu beharko du bere erabakia. ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari Mirari Irure pozik da ekimenak orain arte egin duen bidearekin, baina oraindik zeregin ugari ditugula azpimarratzen du.

**-Ekainaren 26an Gasteizko Parlamentuak onartu egin zuen gure sindikatuaren Legegintzako Herri-Ekimena tramitatzea. Zein irakurketa egiten duzu?**

–Zalantzarik gabe albiste ona da, eta demokraziaren ikuspuntu hutsetik begiraturata onargarria zen erabaki bakarra dela esango nuke. Ez dezagun ahaztu ekimen honek 109.396 lagunen sostengua izan duela. Funtsezko gai baten aurrean gaude, milaka lagunen lan-baldintzak hobetzeko aukera eman dezakeen ekimen bat da hau. Bertan lantzen diren gaiak ikusi besterik ez dago: subrogazioa, aplikatu beharreko hitzarmenak eta zigorrak –zerbitzua eteteraino– baldintza hauek betetzen ez dituen enpresentzat. Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak aukera aparta dute beren finantzazioaren menpeko sektoreetan prekaritate laboralarekin amaitzeko.



Ezker eskuin ELA-Zerbitzuak federazioko arduradun Marikruz Elkoro, Mirari Irure eta Maite Leizegi, 2013ko abenduaren 13an, Legegintzako Herri-Ekimenaren proposamena Gasteizko Parlamentuan tramitatu zuten egunean.

2. orrialdean jarraitzen du

**Las trabajadoras han logrado el mantenimiento de sus actuales condiciones y diversas mejoras tras diez días de huelga**

## GRAN ACUERDO EN EL HOTEL ABANDO

Las trabajadoras del Hotel Abando de Bilbao lograron el 3 de julio un acuerdo con la dirección del hotel; de este modo finalizó la huelga indefinida que comenzó el 23 de junio. Iñaki Oñden, responsable de ELA-Zerbitzuak en Bilbao, destaca que es un magnífico acuerdo. “Es un acuerdo sobresaliente, porque no se limita a contemplar la subrogación de las trabajadoras, sino que va mucho más allá, al contemplarse cláusulas que prohíben la adopción de modificaciones de las condiciones de trabajo, descuelgues salariales, y despidos objetivos, entre otros aspectos”.

Las trabajadoras encargadas de la limpieza del Hotel Abando comenzaron la huelga indefinida en protesta

por la decisión de la dirección de externalizar este servicio. La decisión afectaba a diez trabajadoras con más de 20 años de antigüedad en el Hotel, perteneciente a la cadena Aranzazu. Oñden destaca que gracias al acuerdo logrado “la empresa prestataria de los servicios de limpieza del Hotel subroga a las trabajadoras y renuncia a la adopción de toda medida que pudiere implicar una modificación de las condiciones de trabajo”. Asimismo, el acuerdo contempla la renuncia por parte de la empresa encargada del servicio de limpieza a todo despido por motivos objetivos y descuelgue del convenio.

Por último, Oñden destaca que este gran acuerdo ha sido posible gracias a la ejemplar lucha de este grupo de tra-

bajadoras. “El seguimiento de la huelga fue del 100%. Pese a las amenazas y la actitud de la dirección –incluso denunciamos a la dirección por sustitución ilegal de trabajadoras– la plantilla se mantuvo firme en todo momento. Afiliación, organización y trabajo sindical. Sin duda, estas han sido las claves que han permitido este gran acuerdo”.



**Lankidetu!**



**-Ekimenak, hala ere, ez zuen alderdi guztien babesa izan. EH Bildu, PSE eta UPD izan ziren alde bozkatu zutenak; EAJ eta PP, berriz, abstenitu egin ziren...**

-Gure asmoa Gasteizko Legebiltzarrean ordezkari-tza duten parlamentari eta talde guztien babesa lortzea zen, baina ez da posible izan. Egun ordezkari-tza duten alderdi guztiekin bildu ginen aurretik gure azterketa eta proposamenak zabaltzeko, funtsezkoa iruditzen zitzaigulako ekimenak guztien babesa izatea.

Zentzu honetan asko penatzen gaitu EAJk eta PPk hartu duten jarrera. Batetik onartezina delako horrenbeste lagunek babestu duten ekimen bati ateak ixtea, jarrera demokratiko exkaxa erakutsiz. Bestetik, euren esku egoteaz gain arduradun diren esparru batean dagoen arazo larri bati aurre egiteko borondate-rik agertzen ez dutelako.

**-Gobernuak ere ez du askorik lagundu...**

-Trabak jarri besterik ez du egin. Legebiltzarrak herri-ekimen hau tramitatu bezperetan Eusko Jaurlaritzak bere kontrako txostena aurkeztu zuen, ekimenean jasotako proposamenaren ustezko *ziurgabetasun juridikoa* aitzakia hartuta. Horrelako aitzakiak ontzat ematen baditugu, ziurrenik onena Parlamentua bera ixtea litzateke. Ez dira gutxi ez Rajoyren gobernuak

helegitea jarri dien lege eta ekimenak. Ez, serioak izan gaitzen, aitzakia horren atzetik Parlamentuari eztabaida lapurtzea bilatzen zen.

Badago, ordea, Gobernuaren jarrera hau dela-eta egin nahiko nukeen hausnarketa bat. Azkenaldi honetan bolo-bolo dago *elkarrizketa soziala* deitzen duten hori. Ez du balio Gizarte Gaietarako sailburu Juan Mari Aburtok *gizarte elkarrizketa* aldarrikatzen egotea eta gero uko egitea Legegintzako Herri-Ekimen honek jasotzen dituen neurriak bultzatzeari. Ekimen honekin bai Aburtok bai

Jaurlaritzak aldarrikatzen duten hori aurrera eramateko aukera paregabea dute, baina ikusi dugu zein izan den euren jarrera.

**-Eta, orain, zer? Zeintzuk dira hurrengo urratsak?**

-Kontutan eduki behar dugu uztailen gaudela, eta hilabete honetan zein abuztuan Legebiltzarrak bere jardueraren behera uzten duela. Irailean Legegintzako Herri-Ekimen Eusko Legebiltzarreko batzorde-tako batetara igorriko da. Oraindik ez dakigu zein batzorde izango den, erabaki hori Eusko Legebiltzarreko Mahaiari baitagokio. Ondoren, batzorde honek ekimena aztertuko duen ponentzia bat sortuko du.

Hurrengo hilabeteetan, beraz, adi-adi egon beharko gara. Prozesua oso gertutik jarraitu beharko da. Ezin dugu utzi ekimenean jasotzen diren berme nagusiak edukirik gabe uztea, eta are gutxiago segurtasun juridiko ezaren aitzakia hartuta indarra galtzea.

Bien bitartean azpikontratazio publikoaren esparruan gertatzen diren arazo guztien inguruko informazioa biltzen jarraituko dugu, herri-ekimena aztertuko duen komisioko kide guztiek arazoaren larritasunaren eta dauden alternatiben berri izan dezaten. Zuzenean edo zeharka administrazio publikoarentzat lan egiten duten milaka lagunei eragiten dien arazo baten inguru-

ruan mintzo gara. Eta, behin eta berriz esan dugun bezala, arazo hori konpontzea borondate politiko hutsa da. Borondatea badago posible da. Zalantza da ea egon badagoen...

**-Orain arte Euskal Autonomia Erkidegoaz aritu gara. Nafarroan nola dago egoera?**

-Nafarroan ekimena bere bidea egiten ari da. Kontutan hartu behar dugu sinadura bilketa EAEn baina askoz beranduago hasi zela. Sinadurak jaso dituen euskarrien inguruko arazoak egon ziren Hauteskunde Batzorde Zentralarekin, eta horrek prozesuaren hastapena atzeratu zuen.

Behin sinaduren bilketa hasita balorazioa ezin positiboagoa da. Nafarroan herri-ekimen bat aurrera jarraitzeko eroldaren %1aren babesa jaso behar duzu. Prozesua martxan jarri zenean argi utzi genuen ez ginela gutxieneko kopuru hori biltzearekin konformatu, arazoaren larritasuna dela-eta ekimena ahalik eta gehien zabalduko genuela aipatu genuen. Eta bete dugu. 14.635 sinadura bildu ditugu, beharrezkoa zen kopuruaren halako bi. Sinadura horiek guztiak Hauteskunde Batzorde Zentralari igorri dizkiogu. Behin bertan sinaduren baliotasuna frogatzen dutenean Parlamentuari dagokio erabakitzea ekimena tramitatu hala ez. Kontua zera da: Parlamentuak ez du jarduerarik izango iraila arte; beraz, oraindik ez dakigu zein erabaki hartuko duen. Bien bitartean, orain arte egin dugun bezala, gaia lau haizetara zabaltzen jarraituko dugu, erabakitzea dagokien alderdi zein herritar guztien aurrean.

*El Parlamento Vasco aceptó el 26 de junio tramitar la Iniciativa Legislativa Popular que ha desarrollado ELA estos últimos meses en favor del empleo y de unas condiciones mínimas para el personal subcontratado en el sector público. La decisión tuvo los votos favorables de EH Bildu, PSE y UPyD. Por su parte, tanto el PNV como el PP se abstuvieron.*

## LABURREAN / BREVES



**• Kalitatezko Osakidetza baten alde**

Osakidetza ordezkari-tza duten sindikatu guztiek deituta ekainaren 26an manifestazioa egin zen Bilbon, *Kalitatezko Osakidetza baten alde*. *Enplegua sortu. ¡No más robos!* lelopean. ELAK Osakidetza duen arduradun Pello Ige-regik mobilizazioaren arrakasta nabarmentzen du -5.000 lagun inguruk hartu zuten parte-, eta langileen haserrearen isla dela uste du.

"Agerikoa da Osakidetzako arduradunak urduri jarri direla manifestazioan bildu zen jendetza ikusirik. Bestela nekez ulertzen da hurrengo egunean

sindikatu guztiekin bilera bilateralak egingo dituela azaltzea. ELA bilera horietara joango da, baina bertan ez bada proposamen serio-rik egiten ez gara horrelako bileretara bueltatuko".

"Ekainaren 26ko mobilizazioak, -gaineratzen du Ige-regik-, hainbat helburu zituen: Osakidetzak enplegu sorrera eta honen finkatze proposamen bat egitea edo Garp- en Profesionalaren azken deialdiaren berehalako ordainketa egitea, esaterako. Osakidetzako zuzendaritzak bere burua interpelatuta ikusi du eta, horregatik, argitaratu behar izan du bileren erronda. Gure ustez bilera hauen berri

ematea Giza Baliabideen Zuzendaritzaren urduritasunaren seinale da. Era berean, bilera hauek publiko egiteak propaganda asmoa du, Osakidetzaren negoziatzeko prest dagoelaren itxurak egiteko helburuarekin. Argi dagoen gauza bakarra da ELAK kalitatezko Osakidetzaren aldeko borrokan tinko jarraituko duela".

**• EITB continúa con su política de destrucción de empleo**

ELA quiere volver a denunciar que la política de recortes de EITB está generando una gran destrucción de empleo. En este caso la dirección del Ente ha recortado notablemente la partida presupuestaria destinada a la limpieza, lo que ha provocado el despido de cinco trabajadoras y la reducción de jornada de una sexta entre el personal de la subcontrata que se encarga de la limpieza.

Ana Cermeño, responsable de ELA-Zerbitzuak, destaca que ELA hace un mes ya hizo público un informe en el que venía a denunciar la situación de recortes de empleo que se viene produciendo en EITB, tanto para el personal directo como para el personal de las subcontratas. "Este hecho nos reafirma en dicho informe, en el cual decíamos que la Dirección hace una ges-

ción del grupo desde el punto de vista mercantilista, sin buscar una radio televisión pública vasca de calidad. Lo que la dirección pretende es cubrir el máximo de trabajo con el mínimo de personal".

**• Askatasun sexualen bidean, sindikalagintza bidelagun**

Ekainaren 28an lesbo-gay-transexual-bisexual harrotasuna aldarrikatzeko nazioarteko eguna izan zen. Hori dela-eta ELAK bilkura egin zuen ekainaren 27an Bilbon, sexu-eskubideen defentsa agenda sindikalaren erdigunean egon beharra dagoela aldarrikatzeko. Gainera, gure sindikatuak bat egin zuen LGTB+ mugimenduak Euskal Herri osoan zehar deitutako mobilizazioekin.



**Un seminario sobre vivienda el pasado 3 de julio, en Bilbao, dio inicio a la campaña Por un vivienda digna que desarrollará ELA en los próximos meses**

# “EL ACCESO A LA VIVIENDA NO ES UN DERECHO EN HEGO EUSKAL HERRIA”



De izquierda a derecha, Janire Landaluze, Carlos Sánchez Mato y Mikel Noval

ELA llevará a cabo en los próximos meses una campaña de información sobre las enormes dificultades de acceso a la vivienda que sufrimos en Hego Euskal Herria con el objeto de concienciar a la sociedad sobre la necesidad de movilizarse también en este tema para exigir a las distintas Administraciones un cambio radical en sus políticas. Para ello, se ha publicado un exhaustivo informe en el que se analiza la situación de la vivienda y se explican las alternativas que plantea ELA, así como un folleto muy visual y didáctico en el que se insta a convertir el acceso a la vivienda en un derecho real “y no virtual”. El pistoletazo de salida de esta campaña tuvo lugar el jueves 3 de julio con la celebración de un seminario en Bilbao en el que tomaron parte, además de Mikel Noval y Janire Landaluze, del gabinete técnico y autores del trabajo, Carlos Sánchez Mato, economista y militante activo de distintos movimientos sociales, que explicó el papel de la banca en la burbuja inmobiliaria.

En su intervención, **Carlos Sánchez Mato** expuso la inestabilidad y debilidad estructural del sistema financiero español debido a su escasa capitalización, por lo que de manera periódica se producen quiebras que afectan al conjunto de la sociedad.

Sánchez responsabilizó claramente a la banca en el surgimiento de la burbuja inmobiliaria, “ya que necesitaban crecer en su número de hipotecas; era una huída hacia adelante”, afirmó, para asegurar, a continuación, que el rescate, al que se ha destinado la friolera de 1,5 billones de euros, no va a servir para solucionar el problema porque se parte de un diagnóstico erróneo. “Y se ha comprometido seriamente la situación económica de las Administraciones”.

Sánchez se refirió, también, en su intervención al llamado *Banco malo*, del que dijo que carece de función social, al tiempo que afirmó que su objetivo no es vender las viviendas que tiene

sino todo lo contrario: sostener el precio de la vivienda. “A la Banca no le interesa que bajen los precios porque tiene mucha”.

En otro momento, puso en evidencia la situación radicalmente distinta que se hubiera creado si en vez de rescatar a los bancos el gobierno hubiera decidido rescatar a las familias en dificultades. “El coste de rescatar a esas familias hubiera sido de 7.000 millones; de 30.000 si se les hubiera pagado el crédito entero. Esto es, 200 y 50 veces menos, respectivamente, que lo que ha costado ayudar a las entidades bancarias”.

Tras realizar un somero análisis de las actuaciones bancarias y su sobreendeudamiento, Sánchez concluyó que es muy difícil que las administraciones hagan una política de vivienda “cuando tienen un lobby financiero que te puede arrastrar si se deja caer”. “Les han dado la llave de la casa; la clave y única salida a esta situación es que la titularidad del negocio financiero sea pública. La titularidad pública, con control social y con una actuación diferente es la única manera de dar estabilidad al negocio financiero. El sector financiero debe ser un servicio público y si son privados que lo sean de verdad porque el gran negocio de la banca es utilizar la red pública de protección”.

Entre los argumentos que dio para sostener su afirmación destacó la quiebra del Fondo de Garantía de Depósitos, con un saldo negativo de 1.633 millones de euros y la necesidad de control social. “El 97% del negocio financiero son movimientos especulativos. Ese casino financiero nos afecta a todos desde el momento en que se especula con el precio de bienes tan básicos como los alimentos o la vivienda, y contra eso no hay regulación que valga. La única manera de controlarlo es hacerlo público”.

Tras la exposición de **Janire Landaluze**, que esbozó la situación de la

vivienda en Hego Euskal Herria –que resumimos en el cuadro adjunto– tomó la palabra **Mikel Noval** para explicar, en líneas generales, las propuestas de ELA y el objetivo de la campaña *Por una vivienda digna*. Noval expuso el rechazo frontal del sindicato al modelo anterior, afirmó que las hipotecas no tienen que aumentar y aseguró que la alternativa está en la potenciación del alquiler. “Por un lado, hay que crear un parque público de viviendas en alquiler; por otro, todas las viviendas protegidas que se hagan deben ser en alquiler”.

Asimismo, exigió que se garantice por ley el derecho efectivo a acceder a una vivienda digna, la puesta en marcha de mecanismos para poder exigir de manera efectiva ese derecho a las administraciones, así como participación social en un tema tan vital para el conjunto de la ciudadanía.

En otro momento de su exposición, Noval afirmó que la responsabilidad de la burbuja inmobiliaria no fue de las familias “para las que la única opción

era la compra” y señaló, en cambio, a las entidades financieras y a la clase política por su falta de control. Sobre quién tiene que pagar el desastre social producido, Noval se mostró taxativo. “Quienes no tenemos que pagar somos nosotros/as, los más desfavorecidos. Es una deuda ilegítima y tendremos que ir normalizando el impago de este tipo de deudas”.

Noval se extendió en la problemática de los desahucios, por su impacto social. Recalcó la necesidad de paralizar los desahucios de viviendas habituales de familias que no tengan ingresos suficientes y planteó como alternativa la dación en pago y la posibilidad de que puedan continuar en su vivienda pagando un alquiler social.

El responsable de política social de ELA concluyó su intervención destacando la necesidad de socializar, movilizar e, incluso, apoyó la desobediencia civil en la lucha por el derecho a una vivienda digna.

## SITUACIÓN DE LA VIVIENDA EN HEGO EUSKAL HERRIA: DRAMA SOCIAL

- La vivienda es un negocio, no un derecho básico exigible.
- En Hego Euskal Herria hay más de 100.000 viviendas vacías.
- Más de 100.000 personas no pueden independizarse. Su edad media ronda la treintena.
- Hay menos de 8.000 viviendas protegidas y sólo 800 están de alquiler.
- En el mercado libre las hipotecas son de por vida.
- El alquiler medio ronda los 900 euros.
- En los últimos 6 años se han producido casi 15.000 desahucios.
- Las dotaciones presupuestarias son insuficientes, y a la baja: en 2014, el gobierno vasco y el de navarra dedicaron a vivienda la mitad que en 2009 (165 millones de euros).
- Las instituciones no hacen sus deberes: necesitamos leyes de vivienda, una ordenación territorial y regulación del suelo.



Reivindicación y movilización. Tras el debate, los asistentes se dirigieron en manifestación hasta las inmediaciones de la sede del Gobierno Vasco, en Bilbao (Gran Vía, 85).

